

Begun osoko festa izango du datorren larunbatean, hilaren 31n. Izan ere, Bertso Egurenaren 46. edizioa antolatu dute Donostian, hiri guztia kantuz eta hitzez betez. Aurten, *Jolastu nahi?* lelopean, jolasteko proposamena egiten dute, baina betiere "serio" aritzekoa, Jon Agirresarobe Euskal Herriko Bertsozaleen Elkarteko ordezkariak adierazi zuenez. "Urtean plazetan jolasten dugu, eta ideia hori islatu nahi izan dugu egun berezi honetan", azaldu zuen.

BERTSOZ BETETAKO EGUNA Horrela, egunean zehar ekitaldi ezberdinak egingo dituzte, eta guztira 30 bertsolari hartuko dute parte. Goizean bertso-jira antolatu dute Donostiako Alde Zaharrean. Eguerdian hasiko da Bretxan, eta ondoren Konstituzio plazatik eta Ikatz kaletik pasako dira. Bertan bederatzi bertsolari hartuko dute parte: Amaia Agirrek, Iñaki Zelaiak, Eneko Fernandezek, Arrate Illarok, Xabi Igoak, Nahikari Gabilondok, Ander Elortegik, Unai Gaztelumendik eta Maddalen Arzallusek. "Eskarmentu handiko jendea eta bertsoan hasiberria dena elkartu nahi izan ditugu hitzordu honetan", azaldu zuen Agirresarobek. Eguerdialdi erreparatu behar dien arren, euriari ohituta daudela gehitu zuen, eta beldurrik gabe bertsoan aritzeko prest egongo direla.

Arratsaldean izango da Bertso

Auditorioak hamabi bertsolari hartuko ditu oholtza gainean 18.00etatik aurrera: Unai Iturriaga, Unai Agirre, Nerea Ibarzabal, Alaia Martin, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Nerea Elustondo, Eneko Lazkoz, Onintza Enbeita, Sustrai Colina, Andoni Egaña eta Amets Arzallus. "Jolasaren gaia ekitaldi honetan nabaritu da gehienbat, egun guztian zehar haria jarraitzen saiatuko garen arren", aipatu zuen Agirresarobek. Hala ere, ez zuen gaiari buruz asko aurreratu nahi izan: "Suspense pixka bat utzi nahi dut".

"Arratsaldeko ekitaldi hau mimoz prestatzen dugu, buruhauste bat izaten da guretzat, Kurasaalek eskaintzen dizkigun baliabide guz-

gaineratu zuen Bertsozaleen Elkarteko ordezkariak. Hitzordu hau antolatzeaz arduratu dira Ainhoa Aranburu, Arnaitz Lasarte, Eñaut Agirre eta Josu Goikoetxea, eta eurek landu dute ideia, baita gaiak prestatu ere. Gainera, ekitaldi hau telebistan ikusteko aukera egongo da, gaueko 22.00etan, *ETB*iek eskainiko baitu.

Azkenik, bigarren urtez Manteo kiroldegian egingo dute bertso-afaria. Lehenengoz, bat-bateko saio bat antolatuko dute, Jone Uria, Beñat Gaztelumendi, Xebastian Lizaso, Irati Anda eta Fredi Paia bertsolariekin. Horren ondoren, *Bat-batean* ikuskizunaz gozatuko dute afarira joateko izena emandako ikusleek, Oskar Estangaren eskutik.

Oraindik sarrerak eskuragarri daude ekitaldirako (18 euro) eta afarirako (40 euro) bertso-sarrerak eus helbidean. Larunbatean denak agortu ez badira, Kurasaaleko lehia-tiletan egongo dira salgai 16.00etatik aurrera.

Bestalde, Nerea Txapartegi Donostiako Udaleko Kultura arduradunak festa honen arrakasta azpimarratu zuen. "Bertsolaritzak etorkizun luzea du", adierazi zuen, gazteak harrapatzen jakin duela gaineratuz. Mikel Mendartek, Kutxaren Gizarte Ekintzako ordezkariak, bertsolari oso indar handia duela aipatu zuen, eta jai honetan parte hartzen jarraituko dutela baieztatu zuen. ●



Markuleta, Artola, Berasategi eta Lindemann, atzo. Argazkia: Ruben Plaza

Literatura unibertsalak ere euskaraz badaki

Idazle atzeritarren lau liburu euskaratu eta plazaratu ditu Erein argitaletxeak

DONOSTIA— Literatura unibertsala euskaraz ere irakur daiteke, eta horren isla dira atzo Erein argitaletxeak aurkeztu zituen liburuak. Guztira, atzeritik datozen lau lan

euskaratu eta plazaratu dituzte oraingoan: *Siddhartha*, Hermann Hessena, David Lindemannek eta Irati Trebifiok itzulia; *Françoise* Saganek idatzitako *Tristezia*, *zer berri*, Gerardo Markuletak euskaratua; Rebecca West idazlearen *Soldaduen itzulera* Maialen Berasategik itzuli du; eta Xabier Artola Zubillagaren lana izan da Marguerite Durasen *Samina* liburua euskaratzea. —N.G.

BERTSO EGUNA 2015

- **Bertso-jira.** Eguerdiko 12.00etan hasiko da Bretxan, eta Konstituzio plazan eta Ikatz kalean ere arituko dira. Bederatzi bertsolari arituko dira
- **Ekitaldi Nagusia.** Kurasaal Auditorioan izango da 18.00etan. Guztira, hamabi bertsolari igoko dira oholtza gainera.
- **Bertso-afaria.** Manteo kiroldegian izango da eta bat-bateko saioaren ostean, Oskar Estangaren ikuskizuna eskainiko dute.